

Iñaki Antiguiedad

**KANDIDATURA
ETA EGITARAUA**

Errektoretzarako
Hauteskundeak

UPV-EHU 2004

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**IZENETIK
IZANERA**

RECTOR: _____

- **Iñaki Antigüedad Auzmendi**

Hidrogeologiako Katedraduna. Geodinamika Saila
Zientzia eta Teknologia Fakultatea

IDAZKARI OROKORRA:

- **Luis Mari Elizalde Alcayaga**

Irakasle Titular Doktorea. Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila
Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola.

ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEA:

- **Edorta Martínez de Marigorta Izaga**

Irakasle Titular Doktorea. Kimika Organikoa I Saila, Farmazia Fakultatea.

GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEA:

- **Pilartxo Etxeberria Murua**

Irakasle Titular Doktorea. Euskal Filologia Saila, Psikologia Fakultatea.

BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEA:

- **Karmen Peñafiel Saiz**

Irakasle Titular Doktorea. Kazetaritza Saila
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.

GENERO-POLITIKAREN ERREKTOREORDEA:

- **Lourdes Domínguez Carrascoso**

Katedraduna. Fisika Aplikatua I Saila
Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa.

IRAKASLEEN ERREKTOREORDEA:

- **Txoli Mateos Gonzalez**

Irakasle Titular Doktorea. Soziologia I Saila, Gizarte eta Komunikazio
Zientzien Fakultatea.

EUSKARA ETA HIZKUNTZA-NORMALKUNTZARAKO ERREKTOREORDEA:

- **Edorta Arana Arrieta**

Irakasle Titular Doktorea. Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.

AURKIBIDEA

UPV-EHU izenetik izanera

- Hizkuntza-Normalkuntza bideratzea 11
- Euskal Herriko unibertsitateen arteko sarea sortzea 15
- Campusen autonomia: estatus juridiko berri baten bila 17
- Europako unibertsitate-eremu bateratuan,
UPV-EHU erreferentziazko unibertsitatea 19
- Kalitatezkoa izango den eta arlo guztiak jasoko dituen ikerkuntza 22
- Arlo soziala eta ekonomikoan lurraldea dinamizatzeko tresna izan 25
- UPV-EHU, eragile aktiboa gatazka politikoa bideratzeko 27

Bestelako unibertsitatea posiblea da

- LOUtik baino harago 31
- Genero-politika unibertsitatera 34
- Ikasleriaren eskubideak bermatzea eta ikasleen protagonismoa indartzea . . 38
- Unibertsitateko langileen lan-baldintzak duintzea, kalitatea indartu 42
 - Irakasle eta Ikertzaileak 44
 - Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala 48
- IKTren eragina euskal gizartean, Unibertsitatea aitzindari 51
- Behar diren baliabide ekonomiko egonkorrak hitzartzea 58
- Elkartasunaren aldeko Unibertsitatea 61

ERANTZUN ESTRATEGIKOEN GARAIA

7

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco izeneko unibertsitate honetan abian da errektorea hautatzeko bidea. Kudeatu nahi den erakundearen nondik norakoa ulertzeko modu asko eta askotarikoak daude, ezbairik gabe. Honetan ere, unibertsitatea inguruko gizartean dagoen aniztasunaren isla da. Hautagai modura lehia honetarako aurkezten dutan programak unibertsitate honen sorreratik gorpuztuz joan den sektore kritiko zabal baten aldarrikapen eta ekarpenetan du funtsezko oinarria, eta etxe honetako hainbat euskaltzale, abertzale eta aurrerakoi biltzeko moduko programa da, lan-taldean eta talde-lanean egina, eta hauteskunde hauetatik harago joan nahi eta behar duena, geroko urrats berrien euskarri.

Oraingo hauteskondeek aparteko garrantzia dute, zer esanik ez. Unibertsitate honek bere burua kokatu behar du laster batean gauzatzeko den Europako Unibertsitate-Esparruaren aurrean, sendo kokatu ere. Ez dugu nahi unibertsitate hau probintzia bateko unibertsitate gisa kokatua izatea esparru horretan. Unibertsitate hau, euskal lurraldeetan diren beste unibertsitateekin sare eraginkor batean uztarturik, Euskal Herriaren goi-mailako unibertsitate-sistema modura kokatzea nahi dugu, kalitatezko hezkuntza, ikerkuntza eta zerbitzuak burutzeko, Euskal Herriaren barnera

8

zein kanpora eman eta zabaltzeko, publikotik publikora autonomiaz bideratuta egonik, unibertsitatea egunez egun egiten dugun guztion esku-hartzeaz kudeatua izanik, eleaniztasunaren barruan euskara ardatz hartuko duena, inguruko gizartean uztartua.

Horiez gain, bestelakoak ere hartu behar ditugu kontuan. Izan ere, urte bi pasatu dira LOU martxan jarri zenetik, eta lege horrek gure unibertsitatean sortu dituen arazoak ikusten ari gara. Bestalde, Euskal Unibertsitate-Sistemaren Legearen garapenak eta Unibertsitateko Estatutuen aplikazioak berebiziko garrantzia izango dute hurrengo urteetan.

Proiektu estrategiko honen eztabaida zabaldu nahi dugu komunitate unibertsitarioan, UPV-EHU honetan, gaurdanik hasita. Gure helburua unibertsitario guztien artean UPV-EHUK izan behar duenaz eztabaidatzea da, eta horretarako Foroa jarriko dugu abian. Bestelako unibertsitatea da eginez eta ekinez lortu nahi duguna, gaurko izenetik biharko izanera. Izan ere, izana dugu funtsa, izena baino gehiago.

Gure aldetik, hauxek dira bultzatu nahi ditugun ezaugarri nagusiak.

Euskal Herriaren Zerbitzurako Unibertsitatea

Euskara, gure hizkuntza propioa, lehenengo mailako hizkuntza bihurtu behar dugu UPV-EHU: ikasketak euskaraz egiteko aukera bermatzeaz gain, unibertsitate bizi osoan ezagutza eta komunikazio tresna izan behar du euskarak.

Gure urrutiko helburua jardun eremu bezala euskal lurralde osoa hartuko duen euskal unibertsitate sistema izanik, gaurdanik UPV-EHUK aitzindari izan behar du horren oinarriak jartzen eta Euskal Herriko gainerako beste unibertsitateekin baterako ekimenak bultzatzen.

Euskal Unibertsitate-Sistema barruan, unibertsitate bakoitzari dagokion autonomia aintzat hartu behar den moduan, bada garaia UPV-EHUren barneko egitura berraztertzeke, eta kanpusen autonomian eta elkarren arteko osagarritasunean oinarrituriko UPV-EHUrantz abiatzeko.

Unibertsitari guztientzako Unibertsitatea

Irakasle-mota guztiak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, ikasleak, guztiok gara UPV-EHUren partaideak eta horrela onartuak izateko bideak ireki behar ditu UPV-EHUK, guztion ekarpenez UPV-EHU hobetzeko.

Unibertsitari gehienak emakumezkoak izatera ailegatu arren, unibertsitateko jardueretan sexu-bereizkeriak irauten du eta horren aurkako eragile aktibo bihurtu behar dugu UPV-EHU.

Ikasleak ezin dira bezeroak besterik izan, unibertsitate-jarduera guztietan parte hartu behar dute eta horretarako baliabideak ezarri behar ditugu.

10

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

Irakasle, ikertzaile eta administrazio eta zerbitzuetako langileen lan-baldintza duinak bermatu behar ditugu negoziazio kolektiboen bidez, hori baita unibertsitatearen kalitatea bermatzeko funtsezko oinarria.

Guztiontzako unibertsitatea izateak unibertsitari guztien eskubideak bermatuak izatea eskatzen du. Elkarbizitza, elkarriketa eta eztabaidarako gune bihurtu behar dugu UPV-EHU, eta gure herriak bizi duen gatazka politikoa bideratzeko prozesuan eragile aktibo ere.

Europara eta mundura irekitako Unibertsitatea

Gure herriarekiko lotura handia duen unibertsitatea garatu nahi dugu, bai, baina Europan eta munduan lehiatzeko gai izango den unibertsitatea ere.

Informazio eta Komunikazio teknologien garai honetan lehiatu ahal izateko UPV-EHUK eredugarria izan behar du teknologia berrien erabileran, horretarako behar diren azpiegiturak, antolakuntza eta inbertsio-politikak bultzatuz.

Europara begira eta mundu osora, aurreratuago dauden herrietara begira, baina egoera injustua bizi duten herriekiko dugun zorra inolaz ere ahaztu gabe. Horrexegatik, UPV-EHUK eskuratzen dituen berezko diru-sarreraren %0.7a Garapenerako Proiektuetan bideratzeko konpromisoa hartzen dugu.

UPV-EHUN IZENETIK IZATERA

HIZKUNTZA-NORMALKUNTZA BIDERATZEA

Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa izateaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat da. Unibertsitatez besteko irakaskuntzan, euskarazko ereduak hazkunde nabarmena izan dute azken urteotan, eta horrek isla argia izan du, besteak beste, unibertsitatera sartzeko hautaprobak euskaraz egiten dituzten ikasleen kopuruan. Hala ere, jakina da oinarrizko irakaskuntzan etenik gabe hazten ari den euskalduntze-prozesuak nolabaiteko mozketak pairatzen duela unibertsitatera heltzean. Hautagai-zerrenda honen ustea da, ordea, unibertsitateak ukaezineko erantzukizuna duela ez bakarrik hala eskatzen duten ikasle euskaldunentzat euskarazko eskaintza bermatzeko, ezpada euskarari behar adina baliabide emateko ere, horrela unibertsitate-bizitzan ezagutzarako eta komunikaziorako tresna duin bihurtu dadin. Gizarte eta kulturako bestelako arloetan bezalaxe, unibertsitateak aitzindari eta eredugarri izan beharko luke euskarazko irakaskuntzari dagokionez ere.

12

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**IZENETIK
IZANERA**

Dena den, ezagun da Euskal Herriko unibertsitateetan, oro har, eta unibertsitate honetan, zehazki, euskarazko irakaskuntza eta ikerkuntza oztopoz gainezka garatzen ari direla gaur egun. Egoera horren erantzule nagusietako bat unibertsitate-egitura bera da, oso zail egiten baita batzuetan euskararen kaltean hartzen diren zenbait erabakiren kontra joatea. Izan ere, besteak beste, euskararen aldeko borondate sendoa behar da horretarako. Preseski, baliabide eragingarri gehiago ere behar dira UPV-EHUko euskararen egoerari aurre egiteko, eta, horiekin batera, unibertsitario askoren pentsamoldean aldaketa sakon bat eragin behar da, euskara gu guztion kultur ondare eta zaindu beharreko altxor modura ikustera iristeko.

UPV-EHUko euskarazko eskaintzari eta, oro har, bizitza unibertsitarioaren euskalduntzeari dagokionez, plangintza bi egin dira dagoeneko, eta hirugarrena egiteko dago. Duda barik, eta plangintzak beren osoan bete ez diren arren, euskarak aurrera egin du unibertsitate honetan, baina gero eta nabariago hautematen da ez dagoela gaitasunik egoera berriari behar bezala erantzuteko. Izan ere, euskaraz ikasi gura duten ikasleen kopurua etengabe hazten ari da, baina ez da modu berean hazi irakasle euskaldunen kopurua. Ukaezina da ez dagoela doikuntzarik euskarazko eskaeraren eta eskaintzaren artean, eta egoera horrek, beste gauza batzuen artean, irakasle euskaldunen lan-baldintzen okertzea ekarri du.

Bestenaz, ezin esan daiteke, inola ere, euskararen erabilera normalizatu denik. Esan beharrik ez dago unibertsitate honen jarduna

(irakaskuntzan, ikerkuntzan eta administrazioan) elebidun izatera ere ez dela heltzen, nahiz eta ikasketa batzuetan ikasle euskaldunen kopurua erdaldunena baino handiagoa izan.

Hautagai-zerrenda honek konpromiso tinkoa agertu gura du adieraziz ezen unibertsitate-bizitzaren arlo guztietan euskarak behar duen jokaerari eutsiko diola, horrela euskal hizkuntza ezagutzarako eta komunikaziorako tresna eraginkor bihurtu dadin eta unibertsitario euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermaturik egon daitezzen. Hortaz, zinez agintzen du honako helburu hauek dituzten lan-ildoak sakontzen ahaleginduko dela:

A. Unibertsitateak eskainitako zerbitzu guztietan euskara modu praktikoa eta erakargarria erabili ahal izatea, horretarako beharrezkoak diren plangintza eraginkorrak indartuz eta zerbitzu horietako arduradunen hizkuntza-soslaia begiratu. Jokaera honen abiapuntua izan behar da ziurtatzea ezin dela euskaldunik egon euskarazko zerbitzurik gabe. Horretarako neurri hauek proposatzen ditugu:

- Euskararen ezagutza-maila jakin bat ezartzea irakasle-lanpostu guztiei, eta beharizan hori bete ahal izateko plangintza sendo bat egitea.
- Unibertsitateak bere irakasleria euskalduntzeko sistema propio bat izatea, UNIRALE izan daitekeena. Oro har, irakasleak eta langileak euskalduntzeko urrats eraginkorrak ematea proposatzen dugu, orduen malgutasunaren eta lan-arduren askapenaren bidez.

- Irakasleen kontratazio-politikari dagokionez, eskaintzen diren irakasle lanpostu berri guztiak elebidunak izatea, salbuespenak salbuespen.

- Administrazio eta Zerbitzuetako Langileriaren kasuan, jendaurrean jardun behar duten langile guztien eskaintza elebiduna izatea.

- Ikasketa berriak sortzean, lehendabizi euskal lerroak susta daitezten ahalbidetzea, eta ez orain arte bezala, erdaraz sustatuak izan ondoren, euskaldunei itzultzaile-funtzioa ematea.

- Arian-arian kaskartzen ari diren irakasle euskaldunen lan-baldintzak hobetzea, irakasgaien eta kredituen gehienezko kopuruak ezarriz.

- Abian jarri berri diren Ehulku edota Testu Orrazketa bezalako zerbitzuak areagotzea eta indartzea, baita irakasleei eskainitako hobekuntza-ikastaroena ere, euskara zientifikoaren kalitatea hobetze aldera eta irakasle euskaldunek jasaten duten ikasmaterialen gabezia leuntzeko helburuarekin.

B) Euskararentzako bilgune eta baliabide berriak sortzea, euskal hizkuntzaren erabilera zientifiko eta akademikoaren mesedean joango direnak. Helburu honi dagokionez, neurri hauek proposatzen ditugu:

- Katedra-politika berri bat sustatzea, jakintza-arlo desberdinen arteko elkarlanetik abiatuz, unibertsitario euskaldunek aurre egin diezaien euskarazko ikerkuntzak eta irakaskuntzak dakartzaten erronkei.

- Euskal Herrian euskal hizkuntza eta kulturaren alde lanean diharduten erakunde unibertsitarioekin elkarlanerako sareak bultzatzea, euskalgintzaren eragile sozialekin hitzarmen-politika ausartari ekitea eta euskarazko hedabideekin harremanak sendotzea.

- Euskal komunitate zientifikoaren bilgunearen sorrera ahalbidetzea, esate baterako, parke edo egitura monotematikoak sortzea, eta arreta berezia ematea campus euskaldun baten sorreraren aukerari.

- Unibertsitatez beherako hezkuntza-erakundeekin kolaborazio-lerroak indartzea, arazo eta baliabide komunak elkarrekin trukatzeko aldera.

- UPV-EHUK berriki sortu den Europako Unibertsitate Eleanitzen Sarean parte hartzea.

Euskal Herriko Unibertsitateen arteko sarea sortzea

Hautagai-zerrenda honetako kideen ustez, gaur egungo unibertsitatearen jarduna Europara begira garatu behar da eta, oro har, elkarlana da jakintza guztien eta zeregin zientifikoaren funtsezko zutabea. Hortaz, barrutiez hitz egitea edo unibertsitateen arteko egitura komunak nabarmentzea sobera legoke Euskal Herria bere osotasunean politikoki egituratuta balego, eta, beraz, unibertsitate nazionala antolatzeko gaitasun osoa balu. Baina, errealitate gordina bestelakoa izanik, euskal lurraldean

hainbat unibertsitatek dihardute eta ez dago horiek guztiak harremanetan ipiniko lituzkeen inolako proiektu komunik. Bide hori landu beharra iradokitzen du Eusko Legebiltzarrak ebatzi behar duen Unibertsitate-Legeak, Euskal Herrian kokaturiko unibertsitateen arteko lehentasunezko harremanak bultzatuko direla dioenean, besteak beste; eta Unibertsitate honetako Estatutuek ere adierazten dute elkarlana bultzatuko dela Euskal Herriko gainerako Unibertsitate publikoekin.

UPV-EHU, bertako langileen eta ikasleen kopurua kontuan hartuta, garrantzitsuena da Euskal Autonomia Erkidegoan eta baita gainerako euskal herrialdeetan ere. Beraz, uste dugu unibertsitate honi dagokiola aitzindari izatea euskal unibertsitate-sistema nazionalaren oinarriak jartzen, unibertsitate bakoitzari legokiokeen autonomia aintzat hartuz.

Hartarako, ezinbestekoa deritzogu ondoko lan-ildoetan sakontzea eta, arian-arian, behar bezalako neurriak gauzatuz joatea:

- Euskal unibertsitarioen arteko lankidetzaren finkatzea. Hartara, Euskal Herriko unibertsitateen artean irakasle, ikasle eta zerbitzuetako langileen mugikortasuna ahalbidetuko da, beren-beregi sinatutako akordioen bidez.

Irakasleei dagokienez, ikerkuntza-proiektu komunak bultzatuko dira, unibertsitate-sail eta jakintza-arloen arteko koordinazioaren bidez. Irakasle bisitariak eta horien egotaldiak ugaritzeko diru-laguntzak sortuko dira.

Ikasleei dagokienez, unibertsitateen arteko beka-politika egokia abian jar dadin ahaleginduko gara. Horrez gain, arreta berezia jarriko dugu, Ipar Euskal Herriko ikasleei UPV-EHU*n* ikasi ahal izatea errazteko.

- Euskal Herriko unibertsitateetako zuzendaritza batzordeen arteko elkarlanari ekitea, ikasketa-planen diseinua hobetze eta, neurri batez, homogeneizatze eta arrazionalizatze aldera.
- Euskal Herriko gainerako unibertsitateekin jardutea, euskara eta euskal kultura bultzatuko luketen ekimenak gauzatzeko helburuarekin.
- Foro Unibertsitario komunak sortu.

Campusen autonomia: estatus juridiko berri baten bila

Nahiz eta 1992. urtetik erabakitako Deserdiratzeko Ildoen bidetik hainbat urrats eman diren (besteak beste, campuseko errektoreordetzak eta campuseko batzordeak sortzea eta, geroxeago, gerentziaordetzak, campuseko idazkaritzak eta aurrekontu deserdiratzeko ereduak), eta horrela 60.000 ikaslek, 4.000 irakaslek eta 1.200 AZPko langilek osaturiko egiturak sorrarazitako desegokitasunak apaltzera bideratu omen diren, errealitateak argi uzten du campusen egituraketa organikoari eta funtzionalari buruzko

eztabaida amaitu gabe dagoela. Egoera hori are nabariagoa da une honetan; izan ere, unibertsitateak inoiz baino gehiago ireki beharra du kanpora, eta egitura malguak behar ditu hainbat eremutan erabaki-ahalmena izateko.

Bestalde, egia da horren aurrean gizarte osoaren mesedetara egon beharko lukeen unibertsitatea, Euskal Herrikoa eta bere Interland Atlantikoaren ardatzean dagoena kasu, egituratzeko zailtasunak areagotu egin daitezkeela, ikasleriaren merkatu-interesengatik borrokatuz eta titulazio-eskaintza artifiziaiki biderkatuz gero.

Ez legoke gaizki UPV-EHUko gaur egungo egituraren aldaketa eragiteko egin daitezkeen aukerak aztertzea. Arazo larriak ditu gaur egungo antolaketa-ereduak, eta arazo horiek, campusak behar adina buruaski ez izatetik datoz. Unibertsitate-gune bakoitzaren autonomia eta elkarren arteko osagarritasuna lortu beharko lirатеke, bai UPV-EHUren kasuan, baita sistema zabalago batean ere.

Lau urte galdu dira orain irtetera doan taldeak arazoak tratatzeko promesa egin zuenetik, eta gainera, onetsi berri diren estatutuek emandako orientabideak ez du deserdiratze-planteamendutik baino urrunago doan horizontea aurreikusten, nahiz eta planteamendu horiek arazo burokratikoak sortzeko baino ez izan. Hortaz:

- Hautagai-zerrenda honek, errektoreordearen bidez eta urtebeteko epean, lan-batzordea eratzeko konpromisoa bereganatzen

du Unibertsitateko Klaustroari gaur egungo deserdiratzearen aurrean alternatiba bat eskaintzeko, campus autonomoetan osaturiko UPV-EHUren ikuspegitik.

- UPV-EHUK bere esku izango ditu koordinazio-ildoak, eta bere campusen bidez titulazio-eskaintza integrala bermatu beharra du.

- Campusek beren nortasun propioa behar dute izan. Horrek eskuduntza akademikoa, ekonomikoa, gestioingintzakoa eta instituzioekikoa izatea esan nahi du, izaera juridikoa barne.

- Zuzendaritza honetan campuseko organo kolegiatuen sorrera landuko dugu, baita horien hautaketa sufragio unibertsalaren bidez gauzatzea eta campusen integrazioa UPV-EHUko organo kolegiatuen barruan lortzea ere.

- Arazo honen azterketarako sortutako lan-batzordeak aintzat hartuko ditu campus berriak sortzeko posibilitateak, bestak beste, campus telematikoa, euskal campusa eta Bilboko campusa.

Europako unibertsitate-eremu bateratuan, UPV-EHU erreferentziazko unibertsitatea

Euskal Herriko gizartearen beharrak —sozialak, kulturalak, ekonomikoak...— betetzea eta gure unibertsitate-sistemak Europako

20

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

goi-mailako irakaskuntza-eremuan lekua izatea dira hautagai-zerrenda honen xedeak.

Azken urteotan Europar Batasunean Unibertsitate-Irakaskuntzako Eremu Bateratua deritzonaren sorrera ari da antolatzen, Boloniako Prozesu edo Adierazpena izenaz ezagutzen dena. Hau guztia VI. Programa Markoarekin batera antolatzen ari da, zeinaren helburua Ikerketarako Europar Eremu Bateratua lortzea den.

Europaren lurretan prestatzen ari diren erreformak hain dira sakonak, ezen Batasuneko herrialde guztien unibertsitate-mailako karrera guztien berrikuspen bat ekarriko dutela, eta, horren ondorioz, titulazio-maparen aldaketa, azken helburua izanik unibertsitateko titulazio guztien bateragarritasuna lortzea Europar Batasunaren barruan. Neurri horien bidez zenbait helburu bilatzen dira, hala nola malgutasuna lortzea titulazioetan gizartearen beharrei egokitzeko, edo pertsonen mugikortasuna bultzatzea. Horiek guztiek Europa osoan kredituen bidezko sistema berdina eta adostu baten erabilera ekarriko dute, Socrates/Erasmus programan aspaldidanik erabili izan diren ECTS (European Credit Transfer System) kredituen modukoa HEIen (Higher Education Institutions) artean mugitzeko. Bestalde, Boloniako Adierazpenean hizkuntza eta kultura ezberdinen goraipamena egiten den arren, ez da ezer argitzen hizkuntza gutxituen egoeraz.

Ikaskuntza-prozesu hezitzaileko faktore nagusiak, egitura berriak, tituluak profesio-perfiletik definitzea (ECTS) eta ikasleen

formazio integrala ahalbidetzen duten irakaskuntza-metodo berriak dira erronketariko batzuk. Europar kredituen sarrerak ahalegin berezia egin beharra dakarkie UPV-EHUko irakasleei, eta beste horrenbeste dakarte ikasketa-planen osaketak eta irakasgaien programek.

Horiek guztiak kontuan izanik, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- Titulazioen ikasketa-planen erreforma eta kreditu-sistema berriaren ezarpena aurrera eraman aurretik, Antolakuntza Akademikorako Errektoreordeak beharrezko baliabideak ipiniko ditu, aldez aurreko eztabaida egin dadin, honako puntu hauek kontuan hartuz: kalitatea eta bere ebaluazioa, Euskal Herriaren behar sozial, kultural eta ekonomikoak eta gure unibertsitate-sistemak Europan izan behar duen tokia.

- Datorren ikasturtean arlo desberdinetako titulazior osatutako Plangintza Pilotua bideratzea, Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzearekin, Boloniako Adierazpenak 2010erako markatzen duen egokitzapena errazteko asmoz.

- Europako eremutik bideratzen den irakasle eta ikasleen mugikortasunean parte-hartze aktiboa izatea, gestioa hobetzeko asmoz. Oso interesgarria da abian jarriko den hirugarren zikloko unibertsitatearteko Erasmus Mundus heziketa-programetan UPV-EHUK parte hartzea (masterrak eta graduondokoak).

- Europar kreditu-sistemak eskatzen duen irakas-berrikuntza erraztea eta beharrezko giza baliabideak eta finantza-baliabideak bermatzea. Halaber, irakasleen hasierako prestakuntzarako plangintza zehatzak garatzea.

Kalitatezkoa izango den eta arlo guztiak jasoko dituen ikerkuntza

Tradizionalki, Unibertsitatearen helburua ez da soilik ezagutza irakastea izan, jakintza eta ezagutza sortzea ere baizik. Testuinguru horretan, gaur egungo unibertsitateak bi oinarritzko ezaugarri ditu: izaera kritikoa eta izaera zientifikoa. Bi izaera horiek ikerkuntzaren ardatz nagusiak izan behar dira.

Baina ezin dugu ahaztu, ikerkuntza eta berak sortutako ezaguera berriak gure gizartearen aurrerapen ekonomikoaren elementu garrantzitsuenetariko bat direla. Hori dela eta, UPV-EHUren ikerkuntzarako sistemak ekonomia integratuagoa eta gizarte kohesionatuagoa lortzeko eta garatzeko xedeaz loturik egon beharko luke. Helburua litzateke, ez soilik zientzia eta teknologia produkziara hurbiltzea, baizik eta sistema hori euskal gizarte osoaren premia kreatzaileak betetzeko gai izatea. Horregatik, UPV-EHUK, kalitatezkoa izateaz gain, ezagutza-arlo guztiak jasoko dituen ikerkuntzaren alde egingo beharko luke apustu, bereziki, euskal gizartearen garapenerako lehentasunezko diren lerroetan.

Aurreko guztia errealitate bihurtzeko gakoa ikerkuntzarako finantziazioan datza. Gaur egun, ikerkuntzarako dauden aurrekontuak ez dira gai azpiegituren aldetik eta pertsonalaren aldetik sortutako beharrak asetzeko. Horregatik, UPV-EHUren ikerkuntzarako aurrekontuak, gure unibertsitatearen benetako ikerkuntza-indarra erakustez gain, Europako parametroetara hurbildu beharko dira. Zentzu horretan, UPV-EHUren ikerkuntza-taldeak kanpoko diru-iturriei, bereziki Europa Batasunekoei, heltzea bultzatu beharko dugu.

Esandakoa kontuan harturik, honako neurri zehatz hauek proposatuko ditugu:

- Gaur egun UPV-EHUen egiten ari den ikerkuntzari buruzko diagnostikoa burutzea eta ikerkuntza-plan estrategikoa egitea.
- Instituzio publikoek onarturiko ikerkuntza-proiektu baten edo gehiagoren ikertzaile nagusi diren edozein motatako irakasleei beren irakaskuntza-betekizunaren murrizpena eskaintzea.
- UPV-EHUren irakasleen ikerkuntza-formazioa bultzatzea. Horretarako, irakaskuntza-betekizunaren murrizpena eskaintzea tesia burutzeko edo kalitatezko nazioarteko ikerkuntza-zentroetan epe laburreko egonaldiak egiteko.
- Ikerkuntza-proiektuen diruaren kudeaketa azkartzea eta erraztea.
- Ikerkuntzaren emaitzen eta teknologiaren zabalpenerako politika

bultzatzea. Atal honetan UPV-EHUn egindako ikerkuntzaren nazioarteko hedapena eta euskal gizarteari zabaltzea bultzatuko dira bereziki.

- Euskararen erabilpena bultzatzea ikerkuntzan ere, bai ikertzaileen arteko eguneroko harremanetan bai ikerlanen dibulgazioan.

- Ikertzaileen kontratazioa bultzatzea.

- Ikerkuntza-proiektuen prestaketa hobetzeko ikastaro metodologikoak antolatzea.

- Ikerkuntzarako laguntza-atalean bitarteko pertsonal gehiago jartzea.

- Ikerkuntzarako deialdiei buruzko informazioa zabaltzea.

- UPV-EHUn deialdietan aurkeztutako proiektuetarako kanpoko adituek egindako ebaluazioa bideratzea.

- Elkarte autonomoan ikerkuntza bultzatzeko dauden erakundeekin harremanak sendotzea.

- Ikerkuntzari buruzko lan-hitzarmenak erraztea eta bultzatzea erakundeekin zein enpreekin.

- Ikerkuntzarako bekak kontratu laboral bihurtzea eta prestatzen ari diren ikertzaile gazteen lana baldintza duinetan gauzatzea.

Arlo soziola eta ekonomikoan lurraldeak dinamizatzeko tresna

Hezkuntza-sistema egitura enblematikoa da gizarte modernoan etorkizunerako, gizartearen aurrerapenean eragin zuzena duelako. Hots, beste hezkuntza-mailekin batera, hezkuntza unibertsitarioa gizartearen zerbitzura kokatu behar da, nahi dugun gizarte aurrerakoa eta hobea lortzeko. Hortaz, unibertsitatean kontuan hartu behar dira Euskal Herrian eta Europar Batasunean gaur egun gertatzen ari diren aldaketak, lortu nahi diren helburuak egoki bideratzeko.

Geure gizartean behar espezifikoak ditugu: hizkuntzarenak, industrialak, ingurugirokoak, sozialak... Beraz, ezinbestekoa da unibertsitatean egin behar diren aldaketa guztiak faktore horien hausnarketa sakonean oinarritzea, unibertsitatea baliagarria izan behar delako Euskal Herria gorpuzteko.

Halaber, kontuan hartu behar da ezen 2004. urtean Ekialdeko estatuak —hezkuntzan, arlo intelektualean eta zientzietan tradizio luzea dutenak— sartuko direla Europar Batasunean, eta ez litzatekeela harrizkoa izango zabaltze horrek UPV_EHUn produktiboko enpresa batzuen deslokalizazioa eragitea.

Gaur egun, ezagutzaren gestioa ongizate sozialaren giltzarria da, eta, horregatik, unibertsitateak ez ditu bakarrik goi-mailako hezkuntzaren eta ikerkuntzaren funtzioak hartzen bere gain; aitzitik,

25

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

dinamizazio ekonomikorako tresna ere izan nahi du. Hori dela eta, sailek, ikerketa-institutuek, ikerketa-taldeek eta unibertsitateko gobernu-organoek mota askotako erlazioak ezartzen dituzte enpresa eta instituzio publiko ugarirekin.

Erdigune/periferia-ereduen aurrean sakabanatuagoak diren kokapen-ereduak sortzen ari dira, ikaskuntzan eta berrikuntzan oinarrituriko lurralde-dinamika berrien sorreran eraginez. Euskal Herriak eredu askotariko horretako erreferente bat izatea izan behar du helburu, eta europar ezagutza-eremuan learning erregio bilakatu.

Unibertsitate eraginkorrenak lurraldearen garapenean bere ikasleak ondoen prestatzen dituztenak —ikasleen trebetasunak, ezagutzen zeharkakotasuna eta ikaskuntza aktiborako prozesuak elementu garrantzitsuak dira etorkizuneko formazio unibertsitarioan— eta ikerkuntza ezagutzaren difusioarekin sinkronizatzen duten dinamikak ezartzeko gaitasuna dutenak izango dira. Izan ere, ikerkuntza, berrikuntza eta difusioa sinkronizaturik daudenean, prozesu berritzailearen eragina askoz ere handiagoa da jarduera ekonomikoan eta herritarren ongizatean.

- Horregatik, helburu horien bidetik, enpresa-haztegien, praktiken gestioaren, mintegien, enpresa-gelen eta behategi zientifikoaren egituraketa sistematizatua bultzatuko dugu.

UPV-EHU Eragile aktiboa gatazka politikoa bideratzeko

Herriaren beharrezko zerbitzura dagoen unibertsitatea nahi dugu, eta beharrezko horien artean gaur egun Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa gainditzea da nabari eta kezkarrietako bat. Gatazka horrek samina sortzen du, eta UPV-EHU bera ere horren isla da. Are gehiago, Unibertsitatea berez dago gatazkan inplikaturik: norbanakoei dagokienez, batzuetan; edo, noizbait, instituzio gisa alde bakarreko iniziatibak hartu dituelako, beste kide batzuen iritzien kontra.

Gatazkaren konponbidera eraman lezaketen bideak aztertzen, ordea, oso gutxi egin du UPV-EHU unibertsitate honek. Gizartean egokitu beharko litzaioken argi-emateko zereginari uko egin dio, eta, ordea, batzuetan inplikazio zuzena bilatu du.

Hori dela eta, unibertsitate-komunitateak arazo honi ekiteko ahalegin berezia egin behar duela uste dugu, eta, horretarako, unibertsitate-mailan eskatu behar den sakontasuna zainduz, garrantzitsutzat jotzen dugu gatazka hori azalpen-parametro batzuetan kokatzea, hori ezinbesteko abiapuntua baita analisi egokia egiteko eta balizko konponbidea bilatzeko.

Ildo horretan, gatazka bere osotasunean ulertzeko, duen izaera politikoa onartu behar zaio errotik, euskal herritarrek Euskal Herriaren egituraketa politikoaz dituzten iritzi kontrajarriak sortua. Hala ere, eztabaida horretan Espainiaren eta Frantziaren injerentzia ilegítimoa gertatu da, eta hori gaur egungo gatazkaren faktore determinagarritzat jotzen dugu.

27

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

Ondorioak ezagunak bezain larriak dira, gatazkaren eraginez urratu egiten baitira pertsona batzuen eskubideak (irakasle mehatxatuak, ikasle presoak...). Baina ondorioak unibertsitatearen jokaeran ere nabari daitezke, espedientatuen edo Prosetecnisaren kasuek erakusten diguten bezala. Unibertsitate batentzat giltzarri den adierazpen-askatasuna urraturik dago horrela, eta urraketa hori ñabardura txikienetara ere heltzen da (kartel batzuk kentzera, esate baterako).

Egoera horren aurrean, eskubide guztiak errespetatu behar direla aldarrikatzen dugu, eta, geure konpromisoa adierazten dugu hori horrela izan dadin. Asmo horrekin, unibertsitatea eragile aktibo bihurtu nahi dugu, eta beste instantzia batzuen ardura eta betebeharra gutxietsi edo baztertu nahi izan gabe, unibertsitateak gatazkan inplikaturik dauden alde guztien komunikazioa erraztu beharko lukeela uste dugu, inolako mugarik edo trabarik ipini gabe. Eta denen arteko komunikazio horri, gainera, zentzu eragilea eman gura diogu; hots, ez hitz egitea hitz egitearren, arazoak gainditzeko xede argiarekin baizik.

Hitz egin, beraz, batzuentzat mingarri diren arazoez, edo besteentzat ulergaitz diren hainbat konturen inguruan: eztabaidaren markoa Euskal Herria dela, gatazka lurralde horretan guztian agertzen baita; Euskal Herriaren etorkizunaz erabakitzeke ahalmena euskal herritarrei dagokiela; eztabaida baldintza demokratikotan, inposiziorik gabe, garatu behar dela; eta gatazkek sortu dituen zauri pertsonal eta kolektiboak ezagutu eta, ahal den neurrian, arintzen ahalegindu behar dela.

Eta hori guztia bideratzen has dadin, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- Talde Errektoralak aitzindaritza hartzea, UPV-EHU eragile aktiboa izan dadin Euskal Herriak bizi duen gatazka potikoa bideratzeko ekimenean eta eskubideen urraketa ezabatzeko prozesuan. Aldi berean, UPV-EHU gatazkan inplikaturiko alde guztien arteko komunikaziorako gunea izan dadin bultzatzea.

- Unibertsitate barruan sortzen diren gatazkak elkarrizketa eta negoziazioaren bidetik gainditzea, judizializatu gabe eta Aldeztaillearen balioa berreskuratuz.

- Irakasle mehatxatuen samina ulertzea, eta, arazoa desager dadin, unibertsitatea gatazka politikoaren konponbidean eragiten eta parte aktiboa izaten jartzea.

- Euskal herritar guztiek ikasteko eta horretarako lekua eta hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea onartuz, ikasle presoek ere beren ikasketak Unibertsitate honetan egiteko duten eskubidea bermatzea.

- Adierazpen askatasuna ukiezineko eskubide gisa bermatzea, segurtasun-enpresen funtzioa argituz eta kontrolatuz. Hau da, Unibertsitatearen ondasunak zaintzera mugatuz, eta kontrol akademiko estu baten pean jarriz, zerbitzu parapolizial bihurtu gabe.

30

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**IZENETIK
IZANERA**

BESTELAKO UNIBERTSITATEA POSIBLEA DA

LOU baino harago

Madrilgo Unibertsitate-legeak duen elementu atzerakoienetako bat hierarkizazioari ematen dion bultzadan datza. LOUren arabera, Klaustrokideen %51 funtzionario doktoreei dagokie, Errektorearen hautaketan funtzionario doktoreen botoek %51 balio dute... Azken finean, erabaki nagusiak funtzionario doktoreen eskuetan uzten ditu legeak, beste motako irakasleen, AZPkoen eta ikasleen parte-hartzea guztiz murrizturik utziz.

Klaustroaren kasuan, irakasleen artean dauden bi kolektiboen eragina guztiz desorekatuta dago. Esate baterako, UPV-EHU 1833 funtzionario doktore daude eta 1766 irakasle kontratatu edo funtzionario ez-doktore. Lehenengok 153 ordezkari hautatu behar dituzte; bigarrenak, aldiz, 54. Beraz, irakasle guztien botoek ez dute balio bera: funtzionario doktore baten botoak beste irakasle batenaren botoak baino hiru aldiz gehiago balio du, gutxi gorabehera. Eta zer esan AZPkoek eta ikasleek duten ordezkaitza apurraz (%11 eta %20, hurrenez hurren). Antidemokratikoa izateaz gain, egoera horrek ez du ahalbidetzen unibertsitateko sektore guztien integrazioa, eta unibertsitate barruan parte-hartzearen inguruko eztabaida zabaltzea eskatzen du.

Legeak jarritako mugak handiak izan arren, posiblea da neurriak hartzea unibertsitateko sektore guztiek era orekatuagoan parte hartzeko eta unibertsitate-eredu integratzaileagoa bultzatzeko.

Gure aldetik, prest gaude honako neurri hauek hartzeko:

- Errektore-Taldearen egiturari. Legearen arabera, errektoreordeak irakasle doktoreen artean izendatu behar dira, baina errektoreordea izan gabe, taldekideen irudi berri bat sortzeko aukera dugu, adjuntua deritzon irudia erabiliz. Gure asmoa da, adjuntu irudiaren bidez irakasle ez-doktoreek, AZPkoek eta ikasleek ere Errektore-Taldean sartzeko aukera izatea.

- Ahalik eta organo gehienetan, %51eko inposizioa gainditzea. Horrela egin zen Behin-behineko Gobernu-Kontseilua eratzean eta horrela dago jasota Estatutu berrietan: hautatuak diren 14 kontseilukideen artean, 6 (%42,8) dira funtzionario doktoreak, 3 (%21,4) bestelako irakasleak, 3 (%21,4) ikasleak eta 2 (%14,2) AZPkoak. Proporzio horiek hobetu egin daitezke eta, bestetik, Errektoreak izendatu behar dituen ordezkariak erabil daitezke, jatorritik dauden desorekak zuzentzeko. Ildo horretatik, Estatutuek finkatutakoaz gain, gure asmoa da funtzionario doktorea ez den beste irakasle bat, AZPko bat eta ikasle bat izendatzea.

- Klaustrokideak hautatzean, irakasle guztien botoek balio bera izatea bermatu behar dugu. Horretarako, Estatutuen eztabaidan

aurkeztutako zuzenketa hau geure egiten dugu: irakasle guztiek kolegio bakarra osatzea eta irakasle bakoitzak bai funtzionario doktoreen ordezkariak bai beste irakasleen ordezkariak hautatzeko aukera izatea, zerrenda irekien bidez. Era horretan, nahiz eta LOUK ezarritako portzentajeak mantendu, irakasle guztien botoek balio bera izango dute. Gauza bera egingo litzateke Zentroetako Juntak aukeratzeko. Proposamen hau aurrera eramateko, prest gaude Estatutuen Erreforma bultzatzeko.

- Estatutuetan zehaztuta dauden Batzorde Akademikoan, Irakasle-Batzordean eta Euskara-Batzordean eta Junta Kotsultiboan aipatzen diren irakasleen artean irakasle-kategoria guztietako kideak proposatzea. Aldi berean, organo guztietan unibertsitateko sektore guztien parte-hartze orekatua bermatu behar dela uste dugu, eta horretarako ezinbestekoa izango da Estatutuak erreformatzea. Batzorde Akademikoan, esate baterako, ez dago AZPko ordezkariarik.

Halaber, legeak zehazten dituen erabaki-organoen demokratizazioa bultzatzeaz gain, unibertsitate-eredu parte-hartzailea bideratu nahi dugu ondoko neurriak hartuz:

- Klaustroari dagokionez, nahiz eta Legeak aukera gutxi eman, nahitaezkoa da gaur egun dagoen parte-hartze eskasa zuzentzea eta Klaustroaren jarduera berpiztea, bai Errektorearen Kudeaketa ebaluatzean, baita planteia daitezkeen eztabaidak burutzean ere.

- Unibertsitate-gai nagusien inguruan (Europarekiko Konbergentzia, dozentziaren ebaluazioa, Ikasketa-Planen erreforma, eta abar), Eztabaida-Foroak antolatzeko asmoa dugu, bertan irakasle, ikasle eta AZPkoek parte hartzeko modu egokiak eskainiz. Foro horien eginkizuna, eztabaida bideratzeaz gain, unibertsitate-komunitatearen iritzia jasotzea izango da. Hori guztia bideratzeko egin beharreko lehenengo eztabaida sektoreei dagozkien portzentajeak zehaztearen ingurukoa izango da, zeren, azken finean, edozein gairen inguruko erabakiak hartzean, erabaki-organoek kontuan hartu behar baitute komunitate unibertsitario osoaren iritzia.

Genero-Politika Unibertsitatera

Emakumeak unibertsitate-hezkuntzara heldu izanak, ikasleen artean gehienak emakumezkoak izateak, emakumeek unibertsitateko irakaskuntza-, ikerkuntza- eta kudeaketa-eginkizunetan parte hartzeak... horiek guztiek unibertsitatearen esparruan gizon eta emakumeen arteko parekatze-egoera batera hurbiltzen ari garen sentsazioa sor dezakete. Baina errealitatea bestelakoa da: azken hamarkadan, munduan zein Euskal Herrian, generoaren ikuspegitik goi-mailako hezkuntzari buruz egin diren ikerketa guztiek agerian utzi dute unibertsitateak arau patriarkalaren arabera antolatuta daudela.

Nahiz eta askotan identifikatzeko zaila izan, sexu-bereizkeriak indarrean dirau unibertsitatearen jardura guztietan. Gaur egun,

arazoa ez da emakumeak unibertsitateko hezkuntzara, irakaskuntzara, ikerketara eta kudeaketara iritsi ahal izatea, baizik eta jarduera horietan duten lekua eta bertan bizi duten egoera: hautatzen dituzten titulazioak eta ezagutza-arloak, beren ibilbide akademikoak eta profesionalak, botere-guneetan duten estatusa, irakasten diren edukiak, erabiltzen diren metodologiak, baliabide didaktikoak, ebaluazio-irizpideak eta tresnak..., onartzen diren aurrekontuak eta arautegiak..., azken finean, unibertsitateko jardueretan oharkabean gertatzen den sexu-bereizkeriak emakumeen autokontzeptuan eta lorpen-itxaropenetan eragiten dituen efektuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoa eragile aktibo bihurtu nahi dugu sexu-bereizkeriaren aurkako borrokan. Horretarako, beharrezkoa izango da erantzun politiko orokorra ematea, unibertsitatea egituratzen duen eredu patriarkala deuseztatzeko. Ildo horretatik, orain arte egin diren ikerketen emaitzak kontuan hartzeaz gain, ezinbestekotzat jotzen dugu UPV-EHUko sektore eta jarduera guztiei buruzko genero-ikerketak bultzatzea sexu-bereizkeriak agerian uzteko eta diagnostiko zehatzagoak eskuratu ahal izateko. Diagnostiko horietan oinarrituz, parekotasunaren ideian oinarritutako sexuen arteko harreman berriak eraikitzeke lagungarriak izango diren eskuhartze-plan eraginkorrak diseinatzea eta abian jartzea izango dira gure erronkak.

Esan bezala, gure helburu orokorra sexu-bereizkeriaren aurkako borrokan UPV-EHU eragile aktibo bihurtzea da, eta bide horretan, honako helburu zehatz hauek garatzeko konpromisoa hartzen dugu:

- UPV-EHUren jarduera akademikoa zein kudeaketa genero-ikuspegitik aztertzea, egoeraren diagnostiko zehatzak eta diagnostiko orokorra lortzeko.

Nahiz eta orain arte egindako ikerketei esker emakumezko ikasleen eta irakasleen parte-hartzeari buruzko datuak izan, beste asko falta dira oraindik, bere osotasunean harturik unibertsitateari buruzko genero-diagnostikoa edukitzeko.

Burutu behar diren genero-ikerketek, gure ustez, kontuan hartu beharko lituzkete jarduera akademikoaren zein administrazio- eta instituzio-kudeaketaren eremuak. Emakumeen eta gizonen parte-hartze edo presentziari buruzko datuetan sakontzeaz gain, ezinbestekotzat jotzen dugu, bi eremu horietan orain arte aztertu ez diren alderdi batzuk kontuan hartzea, adibidez, unibertsitateak sortzen dituen hainbat motatako dokumentuak, eguneroko jardueretan izaten diren pertsonen arteko harremanak eta portaerak, eta emakumeari, gizonari zein unibertsitate-jarduerari buruz ditugun kontzeptuak, balioak eta jarrerak.

- UPV-EHUren Genero-Politika diseinatzea eta bere erabakitze-organo guztietan adostea.

UPV-EHUren Genero-Politika diseinatzeko, goi-mailako hezkuntzan gertatzen diren sexu-bereizkeriak deuseztatze aldera, beharrezkoa izango da nazioarteko ikerketa, konbentzio eta itunetan

jasotzen diren neurriak zein Emakundek proposatzen dituen neurriak abiapuntutzat hartzea. Aipaturiko neurri horiek UPV-EHUren genero-diagnostikoarekin alderatuz, unibertsitate honen Genero-Politika artikulatuko duten ardatzak zehaztu eta erabaki ahal izango ditugu.

- UPV-EHUren jarduera akademikoan eta kudeaketan sexu-bereizkeria deuseztatuko duten eskuhartze-plan zehatzak diseinatzea eta abian jartzea.

Unibertsitateko jarduera-eremuei buruz egindako diagnostikoetan oinarrituz, beharrezkoa izango da eskuhartze-plan zehatzak diseinatzea eta abian jartzeko lehentasunak finkatzea.

Proposamen gisa, unibertsitatearen zerbitzu zentraletan lehentasunezko eskuhartze-planak abian jartzea planteatzen dugu, beren barnean egitura komunak biltzen dituztelako eta eredu gisa har daitezkeelako UPV-EHUren gainerako egituretan ekimenak garatzeko.

- UPV-EHUren Genero-Politikaren ezarpena eta garapena bermatuko duten egitura instituzionalak sortzea.

- UPV-EHUren Genero-Politikaren ezarpena eta garapena bermatzeko eta beraren betetze-maila ebaluatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da egitura berriak sortzea. Egitura horiek izaera kolegiatua eta unibertsitatearen erabakitze-organoetan eragiteko ahalmena izan beharko dituzte. Beraz, unibertsitatearen eremu

guztietan gertatzen den sexu-bereizkeriari aurre egiteko egitura egokienak Genero-Errektoreordetza eta Genero-Ikasketen Institutua dira, gure ustez.

- UPV-EHUren Genero-Politika ezartzeko eta garatzeko beharrezkoak diren lankidetzahitzarmenak bultzatzea.

UPV-EHUren Genero-Politika ezartzeko eta garatzeko ezinbestekoa izango da, halaber, genero-alorrean eskumenak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko eta Euskal Herriko zein nazioarteko erakundeekin lankidetzahitzarmenak sinatzea.

Ikasleriaren eskubideak bermatzea eta ikasleen protagonismoa indartzea

Ikasteko eta bizitzeko ikasleek dituzten baldintzak hobetzea

Abiapuntu modura bi oinarri azaldu behar ditugu: batetik, hezkuntzarako eskubidea, hots, nahi ditugun ikasketak aurrebaldintza eta traba ekonomiko, sozial, akademiko edota administratiborik gabe burutzeko eskubidea, eta bestetik, ikasbaldintza duinetan ikasteko eskubidea, hau da, ikasketa horiek kalitatez eta baliabide duinekin aurrera eramateko eskubidea.

UPV-EHU unibertsitate publikoa da izenak dioenez eta baita finantziarioari eta besteri dagokienez instituzio publikoekin duen harremanagatik ere, baina publiko izateak doakotasuna ere badakarkigu burura (kontuan izanik ezen hainbat zerbitzuek defizitario izan beharko dutela, berez) eta, hortaz, guztiontzat eskuragarri izan beharko lukeen eskaintza izan beharko luke.

Errealitatea, ordea, bestelakoa da. Matrikulen, garraioaren, ikasle-egoitzen edota ikasle-pisuen prezio altuek alde batetik, eta numerus clausus delakoak, selektibitateak eta antzeko hautapropa edo ebaluazio-sistema partzial eta atzerakoiek bestetik, ikasleek nahi dutena ezin ikastea dakarte. Ondorioz, aipatutako ikasle-eskubideen urraketa gertatzen da, eta ikasleen baldintzetara egokituta ez dagoen eredu dugu indarrean.

Hautagai-zerrenda honek honako neurri hauek proposatzen ditu:

- Unibertsitateko garraioan ikasle-bonoak (gutxienez %50eko beherapena egingo dutenak) ezartzea, zerbitzu horretan Unibertsitateak ardura zuzena hartuz.
- Ikasle-egoitzen sare bat antolatzea, baldintza eta prezioen egokitzapenak eginez eta eskuragarritasuna bideratuz.
- Beka-politika zabalagoa bultzatzea hainbat motatako beharrak asetzeko (matrikula, material eta baliabide didaktikoak, egoitzak eta garraioa), eta beken eskaintza-kopurua nabarmenki handitzea.

40

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

- Numerus clausus delakoaren desagerpena bultzatzea.
- Selektibitatearen eta bestelako hautapoben desagerpena bultzatzea.
- Ebaluazio-sistemaren egokitzapena, eta benetako ebaluazio orokor bat lortzeko sistema emankor eta didaktikoa ezartzea.
- Azterketetako hizkuntza hautatzeko eskubidea izatea.
- Ikasleentzako arreta-zerbitzua eskaintzea.

Ikasleen parte-hartzea bermatzea

Unibertsitateak ikasleen eta gizartearen zerbitzurako eragile aktiboa izan behar du, etorkizuneko profesionalak sortuz eta prestatuz, gizartearen beharrak asetuko dituzten ikerketak eta eztabaidak kaleratuz... Ikasleek, urte batzuk iragan ondoren unibertsitatetik kanpora badoaz ere, hezkuntza-prozesuan subjektu izateko eskubidea dute. Beraz, etorkizuneko profesionalak izango direnak edota ikerketak burutuko dituzten ikasleak unibertsitatean subjektu izateko eskubidea dute, eta unibertsitateak berak bere zerbitzua hobetu eta egokitzeko ezinbestekoa da zentzu honetan neurriak hartzea.

Xede horrekin, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- Ikasle-Kontseiluen funtzionamenduan (fakultatekoetan eta, bereziki, unibertsitate osokoan) ikasle-taldeen parte-hartzea ahalbidetzea.

- Ikasleriaren Errektoreordetzak eta Ikasleriaren Albokoak foroak zabalduko dituzte demokrazia-eredu parte-hartzailea garatzeko, gaur egungo ordezkari-eredua gainditzeko eta oraingo egoeraren aurreko alternatibak ahalbidetzeko.

- Unibertsitateko kudeaketa eta dozentzia ebaluatzeko bideak jartzea, irakasleen ebaluazio-inkestak sinboliko izatetik eraginkor izatera pasatzeko bideak jarriz, esate baterako.

Euskal Herrian ikasteko eskubidea

Euskal ikasleek Euskal Herrian ikasteko eskubidea dute, baldintzapen administratibo, akademiko eta kurrikularren gainetik. Beraz, euskal ikasle orok Euskal Herriko edozein unibertsitatetan ikasteko aukera izan behar du.

Zentzu horretan, UPV-EHUK edozein lurraldetako euskal ikasleei bertan ikasteko aukera ireki behar die zatiketa administratiboaren gainetik. Baita baldintza berezi eta larriak dituztenei ere.

Honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- Euskal ikasle orok UPV-EHUn ikasi ahal izateko baldintzak jartzea.

Euskal Herri osoko ikasleek eskubide berdinak izatea.

Hautaprobak dauden bitartean, horietan hizkuntza aukeratzeko bideak jartzea.

- Ikasle presoek beren ikasketak burutzeko bitartekoak jartzea.

Ikasle presoentzako tutoreak ziurtatzeko bideak jartzea.

Ikasmaterialaren (hizkuntza aukeratuan, ahal izanik) eskuragarritasuna bermatzea.

Unibertsitateko langileen lan-baldintza duintzea

Kalitate eta konpetitibitatearen izenean, prekaritatea, azpikontratazioa, ezegonkortasun laborala, sustapen profesionalerako arrazoizko irizpiderik eza, osagarri diskriminatzaileen bidezko lan-baldintzen desarauketa, zerbitzu-eginkizunak eta kostuak "arrazionalizatzeko" orduan eginiko ezkutuko balorazioak ohiko arau suertatzen ari dira langileriaren kudeaketa-politikan.

Praktikatzen den langileriaren kudeaketa-politikak sistematikoki egiten dio uko lan-baldintzen negoziatioari, Akordioak eta Lan-Hitzarmenak 1996. eta 1997. urteetakoak izateak argi adierazten duen

bezala, beren eduki asko debaluatuz; eta horrek, gogorik eza ekarri du UPV-EHUko aldaketa estrategikoak bideratzeko orduan.

Indarrean jarriko dugun langileriaren kudeaketa-politikak unibertsitateko eragile sozialen parte-hartzearekin buruturiko diagnosi gardenak izango ditu oinarrian. Politika horrek, ezinbestean, irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren hobekuntzarekin batera, herritar guztien eskura hizkuntza-normalizazioa eta kalitatezko goi-mailako irakaskuntza jartzeko eskaera sozialak izango ditu erreferentetzat.

- Plantillaren promozioan eta egonkortasunean oinarriturik, ikasgune, sail eta zerbitzu orokorren beharrei modu orekatuan erantzungo dien langileriaren kudeaketa-politika bideratzea.

- Irakasle/ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen plantilla europarren batez besteko parametroetara heltzeko, Administrazio Publikoetatik finantziazio nahikoa eta egonkorra eskatzea.

- Unibertsitateko eragile sozialei —sindikatuiei— duten interlokuzio eta negoziatorako gaitasuna aitortzea, 2004ko urtean Lan Hitzarmen eta Akordioa Guztiak ahalbideratzen.

- Laneko Osasuna. Ikuspegi integral batetik prebentziozko estrategia adostea, langileen osasunaren ezin bortxatuzko izaera gauzatuz. Lehentasun- eta jarduera-irizpideak aipatzearen, besteren artean honako hauek leudeke:

Arriskuen ebaluazioa, teknikarien taldea eta langileriaren parte-hartzea.

Lanerako ezintasunen alta eta baje kudeaketa eta kontrola (lan-istripuak barne) eremu publikoan egingo dira.

Irakasleak eta ikertzaileak

- Irakasleriaren kudeaketa

Bideratu nahi ditugun neurriek 2001eko azaroaren 5eko akordioan dute abiapuntu, plantilla promozionatzeari, egonkortzeari eta lanpostuak sortzeari buruzko akordioan hain zuzen.

Sailetan kontratatutako potentzialaren eta irakas-arduraren artean dauden desorekak bideratzea, aldez aurretik sindikatuekin kontrastatuz. Egoera defizitarioetan lanpostu berriak sortzea, Hezkuntza Sailarekin batera. Eta egoera eszedentarioetan, gaineratikoak arlo afinetan, hizkuntza-gaitasunean, formazioan eta eguneratzean erabiltzeko estimulatzea.

Arduraldi partzialeko kontratuak beren lanbide nagusia unibertsitatetik kanpo duten irakasleei mugatzea, iruzurrezko erabilera ekidinez. Bestelako egoerak arduraldi osoko kontratu bihurtzea.

Europar kredituek, metodo didaktiko berriek eta eskolak euskaraz emateak ezartzen dituzten baldintza berrietatik abiatuz, irakas-ardurak birbanatzea. Unibertsitate-Eskoletako irakasleen eskola-orduak murriztea, aipatu akordioaren arabera.

Irakasleriaren berritze-plana garatzea: aurrejubilazioak, borondatezko arduraldi-murrizketa, urte sabatikoa...

- Plantillaren promozioa eta egonkortasuna. Irakasleria propioa

2004-2008 epean legeria laboraleko 1200 irakasle-lanpostu egonkorren finantziarioa negoziatzeko konpromisoa, irakasle funtzionarioekiko baldintza diskriminatzaile gabe. Gaur egungo irakasle kolaboratzaileen kokapena irudi berrietan negoziatzea.

Irudi berri horien garapenean, arrazoi ideologikoengatik kontratu administratiboari uko egin zioten irakasleei aukerak eskaintzea, kontratatu laboral gisa berronartuak izateko.

Irakasle kolaboratzaile, elkartu eta Unibertsitate-Eskoletako titularrek Doktore gradua lortzeko edota irudi iraunkorretara iristeko curriculumaren osaketarako egitasmo zehatzak garatzea.

- Ordainketa-baldintzen hobekuntza eta homologazioa irakasle guztientzat.

45

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

Irakasleria osoarentzat soldaten homologazio-eskaera desitxuratzen duen norbanakoen ordainketa osagarrien sistema berraztertzea. Kontratu laborala dutenen lansari-sistema negoziatuko da.

Negoiazioak burutzea, kontratatuentzat ere irakaskuntza-osagarrien —bosturtekoak— gaineko akordioa gauzatzeko (1997-VI-27ko Akordioa)..

Arduraldi partzialeko kontratatuen lansariak berraztertzea.

- Hizkuntza-normalizazioa

Irakasleriaren euskalduntzea bultzatzeko, horretarako ezartzen diren ikastaroetara joateko eskubidea bermatuko du UPV-EHUK, ikastaroak dohainekoak izanik eta horietan emandako denbora lanordu gisa konputatuz.

Kide berrien sarrera eta Unibertsitate-komunitatean egin beharreko txertaketa UPV-EHUko hizkuntza-normalizaziorako prozesuak zainduz egingo dira. Hautagai-zerrenda honen iritziz, plaza berri eta lanpostu huts guztiak hizkuntza-gaitasuneko eskakizunarekin konbokatu behar dira.

UPV-EHUK arduraz zainduko du irakaskuntza-hizkuntza modura euskara eskatzen duen lanpostua inoiz ez dezan bete

gaitasun osoa akreditatzen ez duen irakasle batek.

Negoiazio Kolektiboaren bidez eta Euskalduntze-Batzordearen eremuan bideratuko da Hizkuntza-Normalizazio Planaren helburuen garapena.

47

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

- Irakasleriaren formazio-plana

Gure ustez, irakasleriaren formazio iraunkorra instituzioaren beraren eginkizuna da, eta horretarako beharrezko baliabideak bideratuko ditu. Besteren artean, honako gai hauek jasotzen ditugu sakontzeko:

Titulazio berrietarako egokitzapena.

Prestakuntza etengabeko formazioan zerbitzuak eskaintzeko.

Prestakuntza teknologia berrien erabileran.

Arreta pedagogikoa Batxilergotik Unibertsitaterako urratsari.

Ikasleen mugikortasunerako programen ezagutza (Erasmus, Sócrates...).

Berrikuntza metodologikoak.

Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala

Gure asmoa Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren egiturak eta plantillaren diagnostiko bat lehenbailehen egitea da, sindikatuen parte-hartzearekin, eta hori honako helburu saihestezin honekin: oinarrizko akordio batera iristea pertsonalari buruzko politika garatzeko. Halaber, politika hori, negoziazio kolektiboan oinarritua, kudeaketaren esparru definitzaile eta mugatzailea izatea, esparru horri atxikiz UPV-EHUK negoziazio-mahaietan eta I. Unibertsitate-Planean harturiko konpromisoak. Hots:

- Zenbait urtetan plantilla 220 plazatan gehitzea.
- Lanpostu guztien balorazioaren emaitza bere osotasunean ordaintzeko konpromisoaz gain, hitzartutako 600.000 euroak soldata-masaren galera linealki konpentsatzera zuzentzea, izan ere 1994ko lanpostuen balorazioaren ondoren mantentze-fasea ez baitzen burutu.
- Alderdi sozialarekin hitzartutako baldintzetan, plantillaren %60aren 14 urteko ezegonkortasunari amaiera emango dion prozesuari ekitea, behin betiko egonkor bihur dadin bere balio profesionala erakutsia duen pertsonal denborala, gaur egun UPV-EHUK inola ere gal ez dezakeen balio erantsia dena.
- Prozesu hori amaitu bitartean, tartekoak diren pertsonak beren lan-harremana gordeko dute. Edonola ere, eta behin prozesua

amaituta, lanpostu finkorik lortzen ez dutenek poltsak osatzeko lehentasunezko eskubidea izango dute, alderdi sozialarekin hitzartutako baldintzetan.

- Zerbitzu-Eginkizunen eta Funtzio-Esleipenen adjudikazioak egiteko sistema objektibo eta eraginkor bat hitzartzea, promozio-prozesu guztietara zabaltzeko parametroen bidez, eta figura horien erabilera ahalik eta gehien mugatzea, hutsik dauden plazen aldizkako eskaintzak eginez.

- Izendapen askeko plazak gutxiagotzea pixkanaka.

- Pertsonal laboralaren lekualdatze-lehiaketak egitea bermatzea, pertsonal finkoaren kasuan malgutasunez eta denbora baterako pertsonalaren kasuan egonkortasunez.

- Sailkapen-talde ezberdinetatik lanpostuetara heltzeko aukera izatea.

Landu behar den diagnostikoaren eta oinarrizko akordioaren ardatzak honako hauek izango dira:

- UPV-EHUK eskaintzen dituen edo eskain ditzakeen zerbitzu guztien izaera publikoa, euskalduna eta profesionala; beraz, baztertu egingo da horien ezein proiektzio pribatu.

- Beken formazio-izaera. Beharrezkoa da AZPko langileez

50

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

hornitzea, AZPko plantillari dagozkion lanak bekadunek egiten dituzten campus, zentro edo zerbitzuetan.

- UPV-EHUko AZPren lanbide-karrera beresko baten beharra, etengabeko prestakuntzan eta diruz lagunduriko aukerako prestakuntzan oinarritua, karrera oztopatuko ez duten promozio-prozeduren bidez pertsonalaren ahalegina aintzatetsiko duena.

- Administrazio-prozeduren eta erabakiak hartzearen berrikuntza, campusen, zentroen eta zerbitzuen egiturak beharrezko bitartekoez hornituz.

Kudeaketa garden eta objektiboa. Langileek eta ordezkaritza sindikalek pertsonalaren kudeaketaren arduradunekin izan beharreko komunikazio-kanalak artikulatzea eta azkartzea.

- Lana eta komunikazioa euskaraz bermatzea eta bultzatzea.
- II. Normalizazio-Planaren helburuen ebaluazio eta diagnostiko berezia.
- Derrigorrezkotasunak betetzeko xedez, ez betetzeen banakako analisiak egitea.
- Euskara ikasteko metodo nagusi gisa liberazio osoa ezartzea.

- AZPkoen eguneroko lanean euskararen erabilera ziurtatzea komunikazio-kanal (administratiboa, organikoa eta funtzionala) guztietan.

51

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

IKTren eragina Euskal gizartean, Unibertsitatea aitzindari

Informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilerak errotik aldarazi ditu gaur egungo gizartearen jokamoldeak eta, gure esparrura bilduta, mundu zabaleko unibertsitateei ere sakonki eragin die. Gure ustez, aldaketa eta egokitzapeneko aro honetan, aitzindari-rola betetzea eskatu behar zaio unibertsitateari; nolabait esateko, gizartearen begietan unibertsitateak eredugarri izan beharko luke teknologia horien erabileran.

Tamalez, hala ere, ez dugu uste UPV-EHUK erantzukizun hori bere gain hartu duenik. Arlo honetan, gure unibertsitatearen ahalmen eta antolaketa teknologikoa urrun dago erreferentzia edo eredu izatetik. Aitzitik, eguneroko jardunak egiturazko gabezia nabarmenak erakusten dizkigu, bai barne-antolaketan bai kanpora begirako eginkizunetan ere.

Egunero UPV-EHUn dihardugunok badakigu, esate baterako, zein motela eta sendotasun eskasekoa den gure komunikazio-sarea, edo zein erraztasun gutxi ditugun geure jardun akademikoan aurrerakuntza teknologikoak baliatzeko. Ez dago azpiegitura egokirik, ez dago behar bezalako antolakuntzarik, ezta inbertsio-politika planifikaturik ere.

Eta, esan dezagun argi eta ozen, euskarak ez dauka behar bezalako tokirik informazio-teknologiaren esparruan. Azken kontu hau bereziki kezkarria da; izan ere, euskarak behar-beharrezkoa baitu informatikaren munduan presente egotea, bizirik iraungo badu. Horren aldeko apustu estrategikoa egin behar da, baina, zoritxarrez, Euskal Herrian dagoen unibertsitate handienak ez dio gai horri behar bezalako garrantzirik ematen. Euskara, UPV-EHUn bigarren mailara kondenatuta dagoena, are eta baztertuago geratzen da informazio-teknologiaren esparruan.

Lan-ildo nagusiak

Egoera horri aurre egingo bazaio, ez da nahikoa jardunbide puntualak burutzea, baizik eta plangintza orokor bat eratu eta horren arabera ekintza-plana diseinatu behar da. Honako hauek dira proposatzen dugun plangintzaren ardatz nagusiak:

- IISIG (CIDIR) eta gerentzia: kudeaketa gardena eta aukeraberdintasuna bermatzea.

IISIG zentroen jarduna, hain garrantzitsua izanik, kontrolatu eta ebaluatu egin behar da sistematikoki. Zerbitzu horren erabiltzaileak gustura dauden ala ez ebaluatzeko, bitartekoak jarri behar dira. IISIGen barneantolaketa eta lan egiteko ereduak berrikusteko premia dago.

- Planifikatu eta aurreikusi egin behar da ekipoen eta material informatikoen erosketak. Zeregin horretan, errektoreordetzak

gainbegiratu egin behar du IISIGen eta gerentziaren arteko elkarlana, betiere gardentasuna eta aukera-berdintasuna zainduz.

- Zerbitzua profesionalizatzea.

Ez da bidezkoa informatika-zerbitzua bekarien esku uztea, ezta eraginkorra ere. Teknikariak behar dira zeregin horretan.

- Software librearen erabilera lehenestea.

Eredu ekonomiko neoliberalari aurre eginez, software librearen aldeko apustua egitea proposatzen dugu UPV-EHUn, hainbat enpresatan eta erakundetan egin den moduan, azken batean, merkeagoa, hezitzaileagoa eta praktikoagoa delako.

- Irakaskuntzarako eta ikerkuntzarako euskarriak hobetzea.

Gure eguneroko jarduna hobetzeko, tresna eta zerbitzu ugari antola daitezke. Beharrezkoa da unibertsitate aurreratuetako moldeak aztertzea, eta haietara hurbiltzeko ahalegina egitea.

- Konexioen eta sarearen eraginkortasuna hobetzea.

Unibertsitatearen barne-kohesioak eta kanpo-harremanek sare sendo eta azkarraren premia dute. Ez dago unibertsitate moderno bat antolatzerik horrelakorik egon ezean. Gainera, UPV-EHU hain

53

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

handia eta banatua denez, oraindik eta nabarmenagoa da azpiegitura horren premia.

Unibertsitateen arteko konexio azkarra eta eraginkorra bultzatu behar da, eta, bereziki, Euskal Herriko unibertsitateen artekoa, horrela harremanak sendotzeko eta ekimenak partekatzeko.

- Irakaskuntza telematikoa.

Gizartearen beharrei erantzuteko, seriooki planteatu behar da irakaskuntza telematikoaren gaia. Benetan eskaintza oparoa eta kalitatezkoa eskainiko bada, ekimen isolatuak saihestu eta elkarlanaren bidetik jo behar da gai honetan.

- Zerbitzu telematikoen eskaintza aberastea.

Gero eta arlo gehiagotan nabari da zerbitzu telematikoen beharra. Irakaskuntza eta ikerkuntza aipatu ditugu lehen, baina ezin aipatu gabe utzi gestioa. Idazkaritza birtuala edo auto-matrikulazioa dira horren adibide adierazgarriak. Testuinguru horretan, zer egin eta zer hobetu asko dago.

- Informazio- eta Komunikazio-Teknologiak euskaraz.

Orain artean aipatutako lan-ildo guztietan, beharrezkoa da euskarari lehentasunezko trataera ematea. Erdarazko eskaintza ugaria

da nonahi; ordea, nork landuko du euskarazkoa geuk egin ezean?

Proposamen zehatzak

- IISIGen lana ebaluatzeko eta gainbegiratzeko bitartekoak jartzea.

Lanaren antolakuntza batzorde tekniko baten bitartez berrikustea.

Teknikarien kontratazio-plan bat eratzea.

Material eta ekipo informatikoen erosketarako, epe ertaineko plangintza bat diseinatzea eta erosketarako protokoloa berrikustea, betiere gardentasuna eta aukeren berdintasuna zaintzeko.

- Software librea sustatzea.

Software librearen erabilera lehenestea. Dokumentaziorako edo lanerako estandarrak ezartzeko, software librearekin bateragarriak diren aukerak onartuko dira.

Software librea eskuragarri jarriko duen zerbitzari bizkor bat sortzea ("ispilu" bat). Bereziki interesgarria da euskararako egitea, orain arte ez baitago horrelakorik. Gaztelaniarako hainbat daude, eta horietara bideratzeko estekak eskaini behar dira.

- Irakaskuntzarako azpiegitura sendotzea.

Irakasgaien materialak sortzeko tresnak eta estandarrak eskura jartzea.

Lankidetzan aritzeko lan-tresnak eskainiko dira irakasgai bakoitzerako (webguneak, eztabaida-foroak, banaketa-zerrendak, eta abar).

Gelak baliabide telematikoz hornitzea: sare-konexioak, proiektzio-sistemak...

- Ikerkuntzarako azpiegitura sendotzea.

Zerbitzu telematikoak garatzea eta mantentzea.

Ekipo informatikoak erosteko laguntza eta aholkularitza ezartzea.

Arlo espezifikoetan trebatzeko bitartekoak eskaintzea.

Urruneko konexioak egiteko eta talde-lana bideratzeko erraztasunak ematea.

- Argitalpen-zerbitzua eta liburutegia sendotzea.

Edukien tratamendu digitala eta UPV-EHUren argitalpenen

eskaintza digitala lantzea.

Liburutegietan baliabide telematiko gehiago eskaintzea:
lanerako tokietan konexioak eta ordenagailuak jartzea.

Liburutegietako ondarearen digitalizazioa azkartzea.

- Webgunea egoki antolatzea eta zerbitzuz oparo hornitzea.

Erabilgarritasunerako ("usability") eta denontzako irisgarritasunerako ("accessibility") nazioarteko estandarrak errespetatuko dira.

Erakundearen irudi korporatiboa zainduko da, itxura moderno eta praktikoa izateko.

- Ikasleriari zuzendutako zerbitzuak bideratzea.

Ikasle bakoitzeko helbide elektroniko bat jartzea.

Haririk gabeko sarerako sarbidea jartzea unibertsitateko eremu osoan.

Irakaskuntza telematikoa bultzatzea. Titulazio osoak eskaintzeko aukera lantzea, batez ere euskaraz, horrelakorik ez baita inon eskaintzen. Aukera hori egingarria izan dadin, elkarlana bultzatu behar da Euskal Herriko beste unibertsitateekin.

57

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

Behar diren baliabide ekonomiko egonkorrak hitzartzea

UPV-EHUK onartu dituen azken aurrekontuak 2000. urtekoak izan dira. Azken hiru urteotan, UPV-EHUREN aurrekontuak urte horretakoen luzapenak izan dira, ez baita aukerarik egon aurrekontu berriak eztabaidatzeko.

Benetako aurrekonturik izan gabe, ezagunak dira UPV-EHUK azken aldiak izan dituen arazo ekonomikoak. Arazoen iturriak bi hauexek izan dira:

Eusko Jaurlaritzaren 2000ko aurrekontuen luzapena.

Euskotramoen ordainketa.

Eusko Jaurlaritzak lehenengotik sortutako diferentzia estaltzeko konpromisoa hartu zuen 2002ko martxoaren 5ean. Baina euskotramoei dagozkien defizitak (2001ean 5,4 miloi euro, eta 2002an 4,6 miloi euro) estaltzeko konpromisorik ez du oraindik hartu Eusko Jaurlaritzak. Bitartean, 2001eko aurrekontuek 4,8 miloi euroko defizita izan dute eta 2002koek 3,4 miloi eurokoa).

Hortaz, 2004. urtean ere arazo ekonomikoak izango ditu UPV-EHUK. Hain zuzen, EAEko aurrekontuak luzatuta daudenez, UPV-EHUK jasoko duen diru-laguntzak ez ditu beteko ezta I. kapituluaren beharrak, eta, gainera, ez ditu kontuan hartuko ohiko aldaketek eskatzen duten gehikuntza.

Dena dela, UPV-EHuren finantziazioa aspaldiko gai gatazkatsua izan da Eusko Jaurlaritzarekin. Nahiz eta aurrekontuak luzatuta ez egon eta euskotramoen ordainketa konpondu, ez dago bermatuta UPV-EHuren finantziazio arrunta. Izatez, Eusko Jaurlaritzak 2004rako aurkeztutako aurrekontuetan finkatzen zen UPV-EHUrako diru-laguntzak ez zituen ezta egungo pertsonalaren gastuak asetzen.

Nolanahi den, UPV-EHUK arazo zahar eta berriei aurre egin behar die: AZPkoen plantillaren gehiketa, irakasleen euskalduntzea, Europarako konbergentzia, campusen deszentralizazioa, laguntzaileen kontratazioa... Horretarako, beste finantziazio-iturriak baztertu gabe, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak UPV-EHUri ematen dion diru-laguntza gehitzea. Gure ustez, gaur egun EAEk unibertsitate-hezkuntzari dedikatzen dion diru-kopurua barne-produktu gordinaren %0,8 besterik ez dela kontuan hartuz, helburua izan behar da diru-kopuru hori barne-produktu gordinaren %1,5era iristea, horrela Europako parametroetan sartu ahal izateko behintzat.

Finantziazioari begira hauexek dira gure taldearen proposamenak:

- Eusko Jaurlaritzarekin negoziazioa hastea, era egonkorrean UPV-EHUK bere jarduera arrunta bermatzeko aurrekontu nahikoa izango duela ziurtatzeko, finantziatorik gabe ez baitago unibertsitate-autonomiarik.
- Aldi berean, zenbait urtetarako programaren finantziazioa negoziatu behar dugu ahalik eta lasterren Eusko Jaurlaritzarekin.

60

Euskal Herriko
Unibertsitatea
**IZENETIK
IZANERA**

- Konpromisoa hartzen dugu jasotako diru-kopurua era gardenean kudeatzeko, diru publikoa tartean egonda, autonomia ez baita kontrolik ezarekin parekatu behar. Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzarekin izan behar dugun komunikazioa errazteko konpromisoa hartzen dugu.

- Euskotramoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzarekin lehenbailehen irtenbide bat bilatzeko konpromisoa hartzen dugu. Gure ustez, Eusko Jaurlaritzak euskotramoen sistema berraztertu behar du, irakasle guztiei horiek eskatzeko aukera emanez eta jasotzeko irizpideak ondo zehaztuz.

- Sinatuta dauden akordio sindikalak (AZPkoen plantilla gehitzea, unibertsitate-eskoletako irakasleen eskola-orduen murrizketa, arduraldi partzialeko kontratuak duintzea...) gauzatzeko beharrezkoa den diru-kopuruaren gehikuntza bermatzea.

- 2004ko aurrekontuak ahalik eta lasterren aurkezteko eta horien inguruko eztabaida zabaltzeko konpromisoa. Ezin da mantendu gaur egungo egoera, UPV-EHU ezin da izan aurrekonturik gabeko erakundea.

- I. Unibertsitate-Plana jadanik amaituta dagoela kontuan hartuz, gure lehentasun bat izango da II. Plana egitea. Bitartean, ezinbestekoak diren Euskalduntze-Planaren eta Titulazio Berrietarako Kontratu-Programen luzapena ziurtatu behar dugu.

- Onartu berria den Euskal Unibertsitate-Sistemaren Legeak finkatzen dituen irakasle iraunkorren irudiak garatzeko, ezinbestekoak dira finantza-konpromisoak. 2005eko irailean eman behar den kontratuen egokitzapena kontuan hartuz, ahalik eta lasterren lortu behar dugu Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa, irudi horiek finantziatzeko plana onartzeko. Aldi berean, Legean agertzen diren beste konpromisoak (AZPkoen egonkortasuna...) gauzatzeko behar den finantziakoa bermatu beharko du Eusko Jaurlaritzak.

Elkartasunaren aldeko Unibertsitatea

- Gaur egun UPV-EHUK dituen ikasle eta irakasleen mugikortasunerako programak (Europa, Latinoamerika...) bultzatzeaz gain, jadanik martxan dauden kooperazio-proiektuak bultzatzeko eta indartzeko asmoa dugu, dauden inizatiben arteko koordinazioa eta osagarritasuna landuz.

- Helburu hau gauzatzeko, gure konpromiso zehatza UPV-EHUren diru-sarreraren %0,7 Garapenerako Proiektuetarako erabiltzea da. Diru-sarreraren artean hauexek aipa ditzakegu: ikasketa ofizialen matrikulak, berezko tituluen eta doktorego-programen matrikulak, kanpoko finantziakoa duten ikerkuntza-proiektuen eta kolaborazio-hitzarmenen sarrerak eta UPV-EHUK eskaintzen dituen zerbitzuen bidez lortutako diru-sarrerak.